

Distantzia **9,2 km** | Desnibela **410 m** | Iraupena **3h15** | Tipologia **Itzulia** | Zedarriak **PR seinaleak**

Hazparnetik segi Kanbora buruz (D10) 5 km-tan, Urkoi auzoraino. Auzoaren zentroan, segi ezker elizako auzora doan karrika. Ibilaldia abiatzen da pilota plazaren eta elizaren artean (aparkaleku ttipia), bada aparkaleku handiago bat ondoko karrikan seinalatua dena.

GPS datuak : **UTM : 633342 - 4802935 Lat/Long : 43.36742/-1.35424**

Urtsua mendiko mendebaldeko eskualdean ibil daiteke Hazparneko Urkoi auzotik abiatuz. Ibilbidea aberatsa da: batean iturri franko dituen haran luze batetik iganen zara, eta bestean ibilbide eroso eginen duzu mendi mazelan, eta ikuspegi ederrez gozatuko duzu.



1. ZATIA > Urkoitik Lapeyreren ibarxkara

UTM : 633342 - 4802935

Urkoiko pilota plazatik abiatzean (85 m), jautsi karriatik eta itzul segidan ezker aparkaleku handiaren bazterretik, eta zoaz errepede ttipitik. Lehen bidegurutzean (Xomindea), hauta ezkerreko bidea errekarren bazterretik ibiltzeko. Patar zuta aitzin, utzi errepidea eta iragan ezazu eskuineko xeila metalikoa, eta zoaz errekarren ezkerreko aldeko bidexkatik. Hondakin baten ondotik, segi ibarrean gora doan bidexkatik. Oihanean, Y formako bidegurutzean, hauta eskuineko bidexka. Ur-jauzi baten gainaldean xendra batek segida hartzen du. Xeila baten ondotik, ezkerretik igaten segitzen du uraren eskuineko aldetik, eta zati lohitsu batzuetatik iragaten da (ur-bilketa).

2. ZATIA > Lapeyreren ibarxkatik Iramaldako lepora


UTM : 633421 - 4801219

Lapeyreren ibarrean, hel zaitez bidegurutze batera (236 m) ur-hodi bateko begi zenbaiten artean: ez joan ez ezkerreko (ibia) ez eskuineko bidetik, eta segi zuzen erreka bazterreko xendran. Oihana pixkanaka argitzen da. Elektriak zutabearen heinean zeharka ezazu lurbidea eta egon pareko xendra belartsuan. Oihanetik kanpo, segi ibarrean gora igaten ezkerrean duzun xendra goxotik. Linea elektrikoaren azpitik sigi-saga igaten da leporaino.

3. ZATIA > Iramaldako lepotik Urtsubehere bordara

UTM : 634161 - 4799691

Iramaldako lepotik (397 m) Baigura ikusiko duzu; ez joan errepidetik baina hartu ezkerreko bidea, eta 50 m-tan



den bordan, itzul ezker lurbide onean. Urtsuko mendebaldeko mazelan gora doa eta ikuspegia zabaltzen hasten da. Gorago borda eder baten beheeretik iraganen zara zati horizontalean (Pilotaxilo - 460 m), bista ederra ukanen duzu Baiguratik ozeanoraino. Hesiaren bazterretik iragan zaitez eta segi ibar basara jausten den bidexka bakarretik. Ez joan ezkerretik heldu den bidexkatik, iturria iragan ezazu eta igan poliki bidegurutzearaino.

4. ZATIA > Urtsubehere bordatik Gillamuren etxaldera

UTM : 634437 - 4801288

Urtsubehere bordako bidegurutzean (438 m), jautsi paretik 50 m-tan, eta bihurtune pasa ondoan hartu ezkerreko xendra, irtengunea osatzen duena. Ikuspegi ederra bada Hazparneko auzoen gainera, kasko baten itzulia egiten du. Xendra iratze-pentzean ateratzen delarik, egon arras eskuin den xendran eta jauts malda zuta laugune belartsura. Istant batez igan zaitez oteen artean, eta hel zaitez T formako bidegurutzera: segi eskuin bide zabaletik. Euskal arkitektura lau etxeetara heltzean, iragan 20 m eskuin eta segidan itzul ezkerreko errepidera.

5. ZATIA > Urkoira itzultzea

UTM : 633615 - 4801777

Bide mundrunatua Gillamuren etxalderaino jausten da (265 m): itzul zaitez bi aldiz eskuin aterpearen aitzinean eta jauts xendra belartsutik. Lurrean den etxe baten heineko Y formako bidegurutzean, hauta ezkerreko bidea. Jausten segituko duzu beste etxalde bateraino, eta han bide mundrunatua segi ezazu ezkerrean. Joatean igan zenuen ibar zolara helduko zara, eta errepede ttipi horretatik jauts zaitez Urkoiraino.

INTERESGUNEAK

❖ Ura biltzen den iturriak (2 km)

Urtsuan, bere izenak dioen bezala, iturri franko bada isurki guzietan gaindi. Lapeyreren ibarxka Lapurdiko ur-dorrea dela erran daiteke, ur-bilketa eta begi ugariak erakusten duten bezala, eta Baionako hiria edateko urez hornitzen du. UTM : 633423 - 4801226

❖ Ubideak eta gune hezeak (2,9 km)

Ibarxkan gora igatean, batzuetan harizko tresneria biziki zaharrak ikus daitezke: lehenbiziko bilketasak ziren eta hornitze-ubideak. Ez baitira zaindu, ura geldirik egon da eta zohikaztegiak sortu ditu non goroldioa eta esfagnoak badiren. UTM : 633430 - 4800520

❖ Borda (4,7 km)

Harrizko murrak, malda eztko teilatuak, ate zabala ardiak errazki sartzeko, platan bat hurbil landatua oihanera laster heltzeko: borda hau ardi etxolaren adibide ona da. UTM : 634178 - 4800341

❖ Pottoka (6,15 km)

Badu milaka urte pottoka euskal mendietan bizi dela; tokiko arraza primitiboa da. Gaur egun hezia da, eta jabeek librokiko uzten dituzte mendietan gaindi ibiltzen; behor eta ume tropa ttipitan ibiltzen dira, eta bazterrak garbitzen dituzte. UTM : 634437 - 4801288

ARRETAZ IBILTZEKO LEKUAK

Artzain eremua: hesiak hets, abereak ez beldurtu, xakurra loturik atxik, abere taldeetarik aski urrun egon

EKIPAMENDUAK ETA ZERBITZUAK

Edateko ur iturria: 5,7 km
UTM : 634450 - 4800926

Ibilbideen erabilbidea

ZAITASUN MAILEN ADIERAZLEAK

Oinezkoen mendi ibilbideak zailtasunaren arabera sailkatuak dira zirkuitu bakoitzaren fitxa praktikoan. Gisa horretan, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioaren gomendioak jarraitzen ditugu.

Oso erraza: 2 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egiteko arras egokia, bide ongi markatuetan.

Erraza: 3 oren baino guttiagoko ibilaldia.

Familian egin daiteke. Bidexka batzuetan pasagune zailxeagoetan pasatuz.

Ertaina: 4 oren baino guttiagoko ibilaldia. Ibiltzeko ohitura duten ibiltarientzat. Batzutan kirol mailako lekuetan edo desnibela duten maldetan.

Zaila: 4 oren baino gehiagoko ibilaldia. Ohitura duten ibiltari

kirolarientzat. Ibilbidea luzea edota zaila da (desnibelatua, pasagune korapilatsuak).

MENDI BIZIKLETAKO IBILALDIAK:

Oso erraza: bide zabala eta gurpiletarako egokia; 300 m baino guttiagoko desnibela.

Erraza: gurpiletarako nahiko egokia den bidexka; 300m baino guttiagoko desnibela.

Ertaina: bidexka teknikoa, 800 m baino guttiagoko desnibela.

Zaila: bidexka oso zaila, 300 eta 800 m arteko desnibela.

DESNIBELA

Fitxetan agertzen den desnibela, goera guzien gehiketa da.

IBILALDIAREN IRAUPENA

Zirkuitu bakoitzarentzat emana den iraupena gutxi gorabeherakoa da.

Kontuan hartzen ditu ibilbi-dearen luzetasuna, desnibela

eta izan litezkeen zailtasunak. Ibilaldi denbora geldialdirik gabe kalkulatu da.

PR® LABELIZATUAK DIREN IBILBIDEAK

Label horren bitartez, Oinezko Ibilaldien Frantziako Federazioak onesten du oinezko ibilbide andana bat, kalitate irizpideen arabera. Hautua egiten da, plazer irizpideen, irizpide teknikoaren, turismo eta ingurumen irizpideen arabera (informazio gehiagorako: www.ffrandonnee.fr)

GPS DATUAK

Abiapuntuaren datua, latitude/longitudetan ematen da, zure ibilgailuaren GPSan sar dezazun. Gainerako datuak (ibilbi-dearen geldiguneak) UTM datuetan emanak dira. Hona erreferentzia zko formatua: WGS 84 - UTM 30T

Jokamolde egokiak mendi ibilaldietan

Ipar Euskal Herriko bidexketan ibili nahi bada, natura errespetatzen duen jokamoldea izan behar da, baina baita lurralde hori biziarazten duten emazte eta gizonak errespetatzen dituen jokamoldea ere. Horretarako, garrantzitsua da arau batzuk errespetatzea.

Abiatu aitzin, presta zaitez

- Ez zaitezela abia beharrezkoa den materialik gabe (mapa, ura, jantzi egokiak, etab.).
- Ez zaitezela bakarrik abia edo, hala eginez gero, hurbileko bati edo herriko etxeari jakitera emaiozu (zenbait lekutan telefono sarrerik ez da eta ezin atzemana bilaka zaitezke).
- Erreketako ura ez ezazula edan eta ez zaitezela honetan baina.
- Eguraldiari buruz informa zaitez, erabat alda daiteke. Jakinean izan zaitez garai hauetaz: lur-erretze, ihizi, oihan-lanetako eta abar.

Natura zain ezazu

- Zakua har ezazu zure hondakinak eramateko.
- Abereak urrunetik eta isilik beha itzazu.
- Basalorerik, baiarik edota onddorik ez ezazula bil baimenik gabe.
- Lekuan emana den seinaleetika errespetatu ezazu eta zaude bidexka zedarrituetan.

Laborantza eta artzaintza aktibitateak errespetatu itzazu

- Autoan ibil zaitez emeki abere taldeetatik hurbiltzean.
- Autoa aparka ezazu horretarako antolatutako diren lekuetan, zirkulazioa ez trabatzeko
- Ez zaitezela ibiltzera joan zure zakurrarekin, bestela, loturik atxik ezazu.
- Xeilak hets itzazu, handik pasa ondoan.
- Ibilbideen gaindi dauden jabego pribatuak errespetatu itzazu.
- Libre diren animalengandik urrun egon zaitez eta ez itzazula bazka.
- Ez ezazula surik eta barbakoaik pitz.
- Kanpa ezazu baimenduak diren guneeetan bakarrik.

Zure hondakinaren kudeaketa

Zure ibilaldietan, hondakinak zure bizkar-zakuan atxiki itzazu. Etxerat heltzerakoan, hondakinak bereiz itzazu eta bigarren bizi bat ukan dezakete!

ZENBAKI BALIAGARRIAK

- Météo France:
08 99 71 02 64 edo 32 50
edo www.meteofrance.fr

- Sokorriak: Larrialdietarako zenbakiak: 112 - SAMU 15 -
SUHILTZAILEAK 18



ZURE IRITZIA GURE BIDEKKEI BURUZ

Proposatzen dizkizugun ibilbideak arreta handiz landu ditugu. Zure irudipenak eta oharrak gure bidexken egoerari buruz interesatzen gaituzte, eta bidexkak egoera onean atxikitzeak aukera ematen digute. Gonbidatzen zaitugu edozein arazo edo ohar baliagarriak jakinaraztera: sentinelles.sportdenature.gouv.fr

HELBIDE BALIAGARRIAK

Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa:
Turismoko harrera bulegoak:

- AHURTI : merkatuko plaza
+33(0)5 59 56 24 65
- BIDAXUNE : pilota plaza
+33(0)5 59 56 03 49
- HAZPARNE : Donibane plaza
+33(0)5 59 29 62 02
- BASTIDA : Pilota plaza
+33(0)5 59 56 03 49

PROFESIONALAK

Brebetadun profesional eta animatzaile anitzek laguntzen zaituzte ezagutuak diren bidexketatik kanpo. Haien zerbitzuak gozatzeko, harremanetan jar zaitez Euskal Elkargoko Turismo Bulegoaren turismoko harrerako bulegoarekin.

ZEDARRITZATZE ITUNA

Hemen aurkezten dizkizugun bidexkak oinezkoen ibilbideak dira (PR®) eta horiz markatuak dira. Halarik ere, bide zati batzuk ibilbide luzeekin (GR) batera litezke; eta kasu horietan, marka zuri-gorriei jarraitu beharko zaizkie. ibilbide fitxetan zehaztuko zaizu hori.

	PR TOKIKO BIDEKKA	GRP TOKIKO IBILBIDE LUZEA	GR® IBILBIDE LUZEA	VTT BIDEKKA
Norabide ona	—	—	—	▲
Itzul ezker	↶	↶	↶	◀
Itzul eskuin	↷	↷	↷	▶
Norabide okerra	✗	✗	✗	✗